

**22/2025 EBAZPENA, URTARRILAREN 8KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN EKONOMIAKO ETA FINANTZAKO ZUZENDARITZAKO INFORMATIKA ETA INFORMAZIO SISTEMEN ZUZENDARIORDETZAKO NEGOZIOKO APLIKAZIOEN ZERBITZUKO (KUDEAKETA-GIZA BALIABIDEAK) INFORMATIKAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUN LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.**

**LANPOSTUA:** INFORMATIKAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA.

**DESTINOA:** Zuzendaritza Nagusia, Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza, Informatika eta Informazio Sistemak Zuzendariordetza, Negozioko Aplikazioen Zerbitzua (Kudeaketa – Giza Baliabideak).

**LANALDIA:** Zatitua (Vitoria-Gasteiz).

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:** 3. HE; derrigortasun-data: 2024/02/22.

**BALDINTZAK:** (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude).

**Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:**

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.
- Ez izatea karrerako funtzionarioko, estatutupeko langile finkoko edo langile lan-kontratudun finkoko izendapenik INFORMATIKAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiari langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko bezala, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta iragarritako azken EPEan kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:**

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo langile lan-kontratadun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionalako gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea INFORMATIKAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA kategorian.
- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lanpostuak betetzeko eskabidea egin izatea norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundearen ez den zerbitzu-erakunde batean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**ESKAKIZUN ESPEZIFIKOAK:**

- Goi-mailako unibertsitate-titulazioa izatea Informatikako lizentziadun/ingeniari gisa.
- Proiektuen kudeaketako metodologietan esperientzia eta ezagutzak izatea.
- Gutxienez 5 urteko esperientzia izatea erabiltzaile askoko SAP inguruneetan.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia izatea ABAP/4 programazioan.
- SAP HCM-OM moduluan esperientzia eta ezagutzak izatea (antolamendu-egituraren kudeaketa)
- SAP HCM-RC moduluan esperientzia eta ezagutzak izatea (langileak kontratatu eta hautatzea)
- Oracle datu-baseetan eta PL/SQL lengoaiaren esperientzia eta ezagutza izatea.
- XML ETA WEB SERVICES teknologietan esperientzia eta ezagutza izatea.

**MEREZIMENDUEN BAREMOA:** (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

**Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:**

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabalitzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

**Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:**

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabalitzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

**Eskatzaile guztientzako euskara ezagutzak:**

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

**ESKABIDEAK AURKEZTEA:**

Interesdunek Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiakin, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenek izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitzen josten duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**LEHENTASUN-HURRENKERA:**

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

- 1.– Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 2.– Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 3.– Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

**BALORAZIO BATZORDEA:**

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala, Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkaria izango da batzordeburu, eta honako hauek osatuko dute balorazio-batzordea: Informatika eta Informazio Sistemen zuzendariordea, Negozioko Aplikazioen zerbitzuburua eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako goi-mailako teknikari bat (azken horrek Idazkari gisa jardungo du).

**HAUTAKETA-PROZEDURA:**

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.



**EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:**

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a.

---



**Osakidetza**  
Josune Retegi Ormazabal  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL